

Zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUA.

1. artikulua.1998ko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa, aldatzea.

2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, xedapen hauek aldatu dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauan:

Bat. 9. artikuluko b) letrako lehenengo paragrafotik hirugarrenera artekoak aldatu dira, eta honela geratu dira idatzita:

«b)Baliaezintasunik gabeko lesio iraunkor, ezintasun iraunkor partzial, oso edo erabatekoaren nahiz elbarritasun handiaren ondorioz Gizarte Segurantzak edo horren ordeko entitate kudeatzaileek zergadunari onartutako prestazioak.

Ezintasun iraunkor osoaren kasuan, salbuespena ez zaie aplikatuko foru arau honek 15.5.a) artikuluan jasotakoez bestelako lan etekinak edo jarduera ekonomikoen etekinak hartzen dituzten zergadunei. Ondorio horietarako, ez dira lan etekintzat joko aurretik burututako zerbitzuen truke jasotako izaera sinbolikoko diruzko edo gauzazko ordainsariak, baldin eta ez badira urtean 500 euro baino zenbateko handiagokoak. Kopuru hori erregelamendu bidez eguneratu ahal izango da.

Edonola ere, prestazioak aldizka jasotzen direnean, aurreko paragrafoan aipatzen den bateraezintasuna ezingo da aplikatu prestazioa lehenengo aldiz jasotzen den zergaldian».

Bi. 9. artikulua h) letra aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«h)Literatur, arte edo zientzia sariak edo giza eskubideen defentsari eta sustapenari lotutako sariak, arauz zehazten diren baldintzetan».

Hiru. 9. artikulua m) letrako 3 zenbakiaren lehen paragrafoa aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«3.Prestazio horiek ekainaren 19ko 1.044/1985 Errege Dekretuz ezarritako ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen direnean -langabezi prestazioak ordainketa bakarreko modalitatean ordaintzea arautzen da bertan-, baldin eta jasotako zenbatekoak aipatu arauan ezarritako helburuetarako eta bertan aurreikusten diren kasuetan erabiltzen badira».

Lau. 9. artikulua p) letra aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«p)Atzerrian benetan egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, honako baldintza hauek betetzen badira:

1.Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat egin behar dira edo, bestela, atzerrian finkaturik dagoen establezimendu iraunkor batentzat.

2.Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko edo pareko beste zerga bat aplikatu behar da, eta herrialde edo lurralde hori ez da paradisu fiskaltzat kalifikatuta egongo arau bidez. Salbu aurkakoa frogatzen bada, lurralde horretan antzeko edo pareko zerga bat aplikatzen dela ulertuko da Espainiako Erresumak lurralde horrekin nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen aplikagarri bat sinatua duenean, baldin eta hitzarmen horrek informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen badu.

Salbuespena urteko 60.100 eurokoa izango da gehienez. Zenbateko hori arauz aldatu ahal izango da.

Atzerrian destinatuturik dauden zergadunentzat, salbuespen hori bateraezina izango da, zenbatekoa edozein dela ere, abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren Erreglamenduari buruzkoak, 6.A.3.b) artikuluan tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen erregimenarekin. Zergadunak salbuespen honen ordeko soberakinen erregimena aplikatzea aukera dezake. Salbuespen hori bakarrik aplikatu zaie atzerriko lurraldean egindako lanaldi osoa 6 hilabetetik beherakoa duten kasuei».

Bost. y) eta z) letrak gehitu zaizkio 9. artikuluari. Hona hemen haien edukia:

«y)Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunak baimendutako behi esnearen erreferentziako kopuruen transferentzia dela-eta agerian jartzen diren errenta positiboak».

«z)Ehorzketa dela-eta jasotako prestazioak, gastuen zenbateko osoaren mugapean».

Sei. 60. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«60. artikulua.Oinarri likidagarri orokorra.

Oinarri ezargarri orokorrari artikulua honetan jasotzen diren murrizpenak aplikatu ondoren, hala badagozkie, ateratzen den kopurua izango da oinarri likidagarri orokorra, betiere ondoren zerrendatzen den ordenari jarraiki:

Lehenena. Pentsio konpentsagarrien eta urteko mantenuen ordainketa.

Bigarrena. Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenak.

Hirugarrena. Baterako tributazioa».

Zazpi. 62. artikulua 7 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«7. Murrizpen hauen mugak ondoko hauek dira:

a) 8.000,00 euro urtean, bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei, pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei eta aseguratutako aurreikuspen planei egindako ekarpen guztietarako.

Hala ere, zergaren sortzapean egunean bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguratuek berrogeita hamabi urte baino gehiago baditu, aurreko muga 1.250,00 euro gehituko da bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek berrogeita hamabi urtetik gorako adina gainditzen duen urte bakoitzeko. Bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuen adina hirurogeita bost urtekoa edo handiagoa denean, 24.250,00 eurokoa izango da muga hori.

Ondorio horietarako, hurrengo b) paragrafoan aipatzen diren kontribuzio enpresarialak ez dira kontuan hartuko.

b) Aurreko a) letran aurreikusitako kopuruak, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten enpleguko pentsio planen edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateen sustatzaileek eta bazkide babesleek bazkideei, partaideei edo mutualistei egotzitako kontribuzio enpresarialak direnean.

Banakako enpresariak gizarte aurreikuspeneko entitate edo mutualitateei edo enpleguko pentsio planei egindako ekarpen propioak muga horren barruan sartzen direla joko da, baldin eta enpresaria aldi berean sustatzailea eta partaide edo mutualista bada edo bazkide babesle eta onuradun gisa ageri bada.

Aurreko paragrafoan aipatutako borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenek arau bidez zehazten diren beharrezkoak bete beharko dituzte».

Zortzi. 77. artikulua 4 apartatuko a) letraren bigarren paragrafoa eta b) letraren bigarren paragrafoa aldatu dira. Honela idatzita geratu dira:

«Portzentaje hori %25ekoa izango da artikulua honetako 2.c) apartatuan aipatzen diren kasuetan izan ezik, zergadunak 35 urte baino gutxiago baditu edo familia ugariaren titularra bada. Gainera, 35 urte baino gutxiagoko zergadunaren oinarri ezargarria ez da izango, behin foru arau honen 61. artikuluan aipatzen den murrizpenarekin gutxituta, 30.000,00 eurotik gorakoa. Bai portzentaje hori eta hurrengo letran aipatzen den %30ekoa zergadunak eskatuta aplikatuko dira, eta bi kasuetan ezinbestekoa izango da zergadunak horiek biak aukeratzea».

«Aurreko portzentajea %30ekoa izango da baldin eta zergaduna 35 urtetik beherakoa bada edo familia ugari burua bada. Gainera, 35 urte baino gutxiagoko zergadunaren oinarri ezargarria ez da izango, behin foru arau honen 61. artikuluan aipatzen den murrizpenarekin gutxituta, 30.000,00 eurotik gorakoa».

Bederatzi. 77.bis artikulua desagertu da.

Hamar. 91. artikulua 2 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«2. Halaber, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik ez dagoenean, bai eta horretarako epaileak emandako ebazpena dagoenean ere, familia unitatea gurasoetako batek eta aurreko apartatuan aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute, norekin bizi diren alde batera utzita. Kasu horietan, beste guraso bat egonez gero, hori ez da aipaturiko familia unitateko kide izango.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, frogatzen bada gurasoetako batek judizialki jaso duela seme-alaba bat edo batzuk zaintzeko ardura, bestearekin partekatuta gabe, familia unitatea guraso horrek eta bere kargupean dituen seme-alabek osatuko dute.

Aurrekoa frogatzen ez bada, eta familia unitatea osatzearen ondorioetarako, seme-alaba guztiak guraso bakar bati esleituko zaizkie bien arteko akordioz. Akordio hori ez badago, gurasoak epailearen ebazpena dela medio zaintzeko esleituak dituen seme-alaba guztiez osatuko du familia unitatea».

2. artikulua.1991ko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua, ondarearen gaineko zergari buruzkoa, aldatzea.

2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 4. artikulua hamaika apartatua aldatu da Ondarearen gaineko zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauan, eta honela geratu da idatzita:

«**Hamaika.** Zergadunaren ohiko etxebizitza, Errenta zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 30.2.b) artikuluan definitua, 200.000,00 euroraino gehienez».